



GIDOA



1. SARRERA
2. PROIEKTUAREN HELBURUAK
3. METOLOGIARI BURUZKO ZENBAIT KONTSIDERAZIO
4. PROIEKTUAREKIN ERLAZIONATUTAKO EDUKIAK
5. PROIEKTUAREN HASTAPENAK



5.1. PRESTAKUNTZA

5.1.1 Gizartearekiko solidarioa den zerbitzuren bat aukeratu.

5.1.2 Oinarrizko elikagaien beharra betetzeko diharduten erakundeak eta pertsonak aurkitu. Hauek lagungarriak izan daitezke ere errealitate honi aurre egiteko gure ikasleekin.

5.1.3 Proiektuan landuko diren hezkuntza-edukiak identifikatu.

5.1.4 Hezkuntza eta metodologia aldeak zehaztu.

5.1.5 Proiektuaren antolamendua erabaki.

5.2. BURUTZE

5.2.1. Proiektua aurkeztu

5.2.2 Lan gidoia egin eta antolatu.

5.2.3 Bizkaiko Elikagaien Bankuari bisita egin.

5.2.4 Gaiari buruzko informazioa bilatu eta txosten bat ekoiztu.

5.2.5 Txostena ezagutarazi.

5.2.6 Gizartearekiko solidarioa den zerbitzuren bat egin

5.2.7 Ebaluazioa eta proiektuaren amaiera.

5.3 PROIEKTUAREN EBALUAZIO OROKORRA.



ERANSKINAK





1. SARRERA

“Bizkaiko Elikagaien Bankua” (BEB) irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Boluntarioek osatzen dute eta bere asmoa da irtenbide bat ematea gizakien oinarrizko beharrari: elikatzea eta elikagaien xahutzeari aurre egitea. Xede horrekin, elikagaiak biltzen ditu, banatzeko gero kideak diren zentroen artean, eman diezazkieten behar duten pertsonei.



Ekonomi krisialdiak, lehen, haien oinarrizko beharrak betetzeko laguntzarik behar ez zuten lagun asko, pobrezian sartu ditu. Behartsuen kopuruaren handiagotzeak erronka bihurtu da erakunde honentzako beraz, ahalegin gehiago egin behar izan ditu aurre emateko hauen beharrei.



Lurraldeko ikastetxe mordo bat BEB aren kideak dira eta elikagaiak jasotzeko kanpainak egiten dituzte. Zenbaitetan, kanpaina hauek eskola ekintzekin doaz.



Gure proposamen honek harantzago joan nahi du ildo honetatik. Eskolara ekarri nahi baitugu egoera hau eta baliabide didaktikoa bihurtu helburu bikoitz batez: umeak lagundu giza errealitatearen ezagupenean sakontzen alde batetik, eta ikerketa prozesu hau erabiliz, curriculumaren edukiak garatu, funtsa eta erabilgarritasuna ematen eskolan ikasitakoari bestalde.



Aukeratutako formatua “Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidario Proiektuarena” da. (1. Eranskina). Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako da. Proposamen honek, ikasketak eta gizarte zerbitzuak bateratzen ditu proiektu bakarrean. Aldi berean ikasten eta inguruko benetako beharrak konpontzeko laguntza ematen baitute partaideek.



Ikasi eta gizarteari zerbitzatu aldi berean, aberasgarriak gertatzen dira bai ikasleentzat bai gizartearentzat ere:

- Zerbitzatzeak sentsua ematen dio ikasteari, funtzionala eta erabilgarria egiten baitu. Bestalde, elementu kurrikularak eta ikasbideak ematen ditu.
- Ikasteak zerbitzuaren kalitatea areagotzen du eta sakontasuna ematen dio: hausnarketa eskatzen baitu, bai egiten denari buruz bai zergatiari buruz.



Proiektu honekin dugun asmoa zera da: gizartearen errealitatea ezagutarazi ikasleei, ikus ditzaten dauden desoreka, xahutzea alde batetik eta gizaki askoren eskasia bestetik. Ikasleek aurki ditzaten egoera honen zenbait kausak, irtenbideak bilatu eta konpromisoak har ditzaten hobetzeko.





2. PROIEKTUAREN HELBURUAK



1.- Ikasleen garapen pertsonala, akademikoa eta soziala lagundu: errendimendua eskolan hobetuz eta bizitzan errotutako irakaspen kritikoa motibatuz.

2.- Ikasleak protagonistak egin, bai eskolan bai haien inguru sozialean. Erabakiak har ditzaten analisi zorrotzean zein balorazio kritikoa oinarrituz.

3.- Lan giroa kreatu non indartzen diren ikasleen sormena, ahalegina lanean eta poza lorpenengatik.



4.- Zentzua eman eskolako irakaspenei, erabilgarriak gertatuko baitzaizkie haien intereseko arazoak konpontzeko.

5.- Ikasleak lagundu erantzukizun handiagoa har dezaten gizartearekiko, haien herritartasuna trebetasunez eta konpromisoaz erabil dezaten.

6.- Behartsuekiko enpatia sustatu ikasleengana.

7.- Ohartarazi umeak elikagaiak ondo banatu behar direla eskasia larriak ekiditeko.

8.- Justizia sozialean eta elkarkidetasunean jardun diren pertsonak eta erakundeak ezagutu.

9.- Elkarlan loturak sortu giza zerbitzu solidarioak egiten dituzten erakundeekin.



3. METODOLOGIARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Hemen aurkezten ditugun ekintzak **laguntzeko** besterik ez dira, proiektua antolatzeko, edo saioak prestatzeko. Baina ekintza hauek ez dira guztiak egin behar, ez dira ere egin ahal diren bakarrak. Egokitu ekintzak zure egoerari: ikasleak, baliabideak e.a. kontuan hartuz.

a. **Proiektuen metodologia**, hau da, zenbait ekintza elkarlotuak edo erlazionatuak, arazoren bat konpontzeko, zerbait ekoizteko edo beharraren bat asetzeko.

- Egoera problematiko bat du abiapuntua, irtenbidea bilatzeko.
- Partaideen interesekoa da.
- Ikasleak dira protagonista. Haien ikusten dituzte beharrak, jarraibideak ezartzen dituzte, ekin egiten diote lanari eta egina baloratzen dute. Ikasleen partaidetza zenbait eta gehiago proiektua aberatsago.
- Arazoa konpontzea du xedea.
- Edukiak funtzionalak dira: aurkeztu, landu eta erabili egingo dira behar diren neurrian arazoa konpontzeko.
- Berdinen arteko lankidetzan oinarrituta dago.
- Jakintza alor-arteakoa da. Gizarteko arazoak konplexu xamarak dira eta irtenbideren bat emateko, jakintza askoren laguntza beharrezkoa da.

b. Honako hau bezalako proiektuak (Ikasi eta Gizarteari Zerbitzatu) **eragina dute analizatzen den egoeran, hobetzeko asmoz**. Egintzak benetakoak izan behar dira eta ikasleen adinari egokituak. Prestakuntza fasean, lehenengo puntuan, gizarteari eman ahal diren zerbitzuen adibideak eskaintzen ditugu.





c. Proiektuetako metodologian **hezitzailearen funtzioa** animatu eta proiektua garatzeko laguntzea da:

- Adinaren arabera, galderak planteatzen eta kontrolatzen
- Eragiten, animatzen, proposatzen...
- Dinamizatzen, proposamenak egiten hausnarketari zein ideien komunikazioari laguntzeko.
- Eztabaidatzen, haien konklusio eta erabakiei buruz hausnarrarazten.
- Informatzen eta informazioaren bilaketa orientatzen.
- Informazioaren bilketa erraz dezaten erremintak proportzionatzen, baita konklusioen egitea, haren komunikazioa, e.a. laguntzen.
- Lanetako sintesiko egitean laguntza ematen.
- Aritu ezagutza ekartzen.
- Prozesuan ikasitakoaren kontzientzia hartzeko laguntzen.



d. Proposatzen diren jardueretan **ikasleen hiru taldekatze desberdinekin** jokatzeko da:

- Talde handia. Hots, ikasgelako edo talde osoa. Saioaren hasieran erabiltzen da lana aurkezteko, gaiari buruzko haien ideiak ezagutzeko, lanen (ekoizpen) aurkezpenetarako eta guztien aurrean egin behar denerako.
- Base taldea, ikasleen bi bikote, eztabaidatzeko, aztertzeko, proposamenak egiteko...
- Bikoteak, lehen hausnarketa egiteko, testuak aztertzeko, ideiak prestatzeko, taldeko beste bikote batekin eztabaidatzeko...



e. Ikasleak talde-lanean entrenatzea, lau ikasle talde batean elkartu eta lan bat proposatu baino askoz gehiago da. Funtzioak definitzea beharrezkoa izango da, arauak erabaki, parte-hartzea sustatu, taldeetako funtzionamenduaren jazarpena egitea eta hobekuntzako areak proposatu... Esteka honetan, Vic Unibertsitateko Pere Pujolasen ekarpen interesgarriak aurki ditzakezu (talde kooperatiboari buruz) [\(2. Eranskina\)](#).



4. PROIEKTUAREKIN ERLAZIONATUTAKO EDUKIAK

Ikasi eta Gizarteari Zerbitzatu proiektuak oso estrategia eraginkorra dira konpetentzien garapenerako [\(3. Eranskina\)](#). Lehenik, testuinguru errealak proportzionatzen dizkiete eta eskolan ikasten dutena garatu eta sentsuaz betetzen ditu, ikasleen motibazioa handitu eta ikasitako beste testuinguruetan erabiltzeko errazten dute. Ez da berdina hizkuntza klase batean gutun bat idaztea ariketa gisan edo Elikagaien Bankuari idaztea honen funtzionamenduari buruzko informazioa eskatzeko. Ez du indar berdina matematika klasean grafikoak irakurtzea edo hauek egin, krisialdiaren eraginez, ezintasunaren zenbait familien egoera islatzeko.

Orientatzeko, jarraian dituzu proiektuaren bitartez landu ahal diren zenbait ikaspenak eta haiekin erlazionatutako konpetentziak.





Konpetentziak	Ikaspen erlazioatuak
Komunikazio linguistikoa	Irakurtzea, laburtzea, informazioa komunikatzea, gutunak idaztea, entzutea, azalpenak eman eta elkarrizketan jardutea. Testu desberdinak ekoiztu lortu nahi duen helburuaren arabera
Matematika	Argi eta doi informazioak, datuak eta argudioak interpretatu eta azaldu. Oinarrizko elementu matematikoak egoera errealean maneiatu. Problema ebazteko estategiak eta kalkulatzeko teknika egokiak aukeratu. Kontabilitate oinarrizko elementu batzuk
Gizatiartasuna eta herritartasuna	Comprender la realidad social en la que viven, conocer personas y entidades que trabajan por mejorar la sociedad, habilidades para trabajar en grupo (escuchar, pactar, solucionar conflictos...), ... Debatir, respeto a las opiniones, respeto a las decisiones democráticas Valores de empatía, solidaridad y compromiso social
Burjabetasuna eta ekimen pertsonala	Bere gaitasunez fidatu. Proposamenak planteatzeko sormena eta konponbideak. Baloratu eta pertsonalak zein taldeko konpromisoak hartu.
Ikasteko ikasi	Lan kooperatiboa Planifikatu eta antolatu Egina eta haren zailtasunei buruzko hausnarketa egin, hobetzeko erabakiak hartu Behaketa eta erregistroaren teknikak eta estrategiak. Arazoak konpondu, kominkatu eta argudiatu. Ikaskuntzan perseberantzia Lor daitezken helmugak planteatu Ikastearen iturria bezala akatsak onartu. Besteek egiten dutenetik ikasi
Informazioaren tratamendua eta eskumen digitala	Informazioa lortu eta medio desberdinez komunikatu. Informazioaren bilaketan, selekzioan, erregistroan eta analisisian trebetatu. Informazioa ezagutzan bihurtu Formatu desberdinetan txostenak prestatu Sare sozial solidarioak ezagutu. Estabaidak sortu blogean
Zientzia, teknologia eta osasun kultura	Elikatze-ohiturak eta osasun duen eragina. Elikadura orekatua Kontsumo ardutatsua eta jasangarria Ingurumen-eragina
Artistika eta giza kultura	Ekoiztutako txostenen aurkezpena Power point, glogster, bideoak edo beste material digitalak sortzea Sloganak, hormairudiak...diseinatu





5. PROIEKTUAREN FASEAK



Proiektua hiru fasetan garatzen da:

- 5.1. PRESTAKUNTZA
- 5.2. BURUTZE
- 5.3. EBALUAZIOA



5.1. PRESTAKUNTZA



Fase honen diseinua irakasleari dagokio. Jardueraren planifikazio aspektu guztiei erreferentzia egiten die.

Irakasleak hartu behar izango dituen erabakiren batzuek dira:



1. Sozialki solidarioa den zerbitzuren bat aukeratu.

Honetan, noski, Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin izan liteke kolaborazioa.

- 1.1. Oinarrizko elikagaiak lortzeko familia askok dituzten arazoekiko ikas komunitatea sentsibilizatzen.
- 1.2. Sentsibilizazioaren kanpaina bat egin, ikasleak, irakasleak eta auzokoak gonbidatu, elkarrekin lan egin dezaten eta elikagaiak eman ditzaten erakunde honek egiten dituen kanpainetan.
- 1.3. Elikagaien bilketa bat antolatu ikastetxean bertan.
- 1.4. Parte hartzen beste boluntarioekin batera, merkataritza-guneetan egiten diren bilketetan.
- 1.5. ...



2. Lan solidarioa egiten duten pertsonak eta erakundeak ezagutu. Batez ere, oinarrizko elikagaien beharra betetzeko jardun direnak. Gure ikasleekin lagundu ahal gaituzte errealitate hau ezagutzeko.

Adibidez:

- 2.1. Bizkaiko Elikagaien Bankua. (helbideak eta harremanetarako pertsonak) [4.Eranskina](#).
- 2.2. Elikagaien entitate banatzaileak. Udalerrien arabera aldatzen dute. Udalerri hurbilenera kontuan hartu ahal izango lituzkete.
- 2.3. Jantoki sozialak.
- 2.4. Udaleko gizarte zerbitzuak.
- 2.5. ...



3. Proiektuan landuko diren edukiak erabaki.

Taldearen ezaugarriek eta irakaslearen lan planak mugatzen dute aukera hau. "Proiektuari lotutako edukiak" izeneko atalean, posiblea diren batzuk aurkezten ditugu. Oinarrizkoak aukeratzea gomendatzen dugu, nahiz eta beste asko landu.





4. Aspektu metodologiko eta hezigarriak definitu.

Jadanik esan dugun bezala, dokumentu honetan egiten dugun deskribapenak, jarduerak eta metodologia orientatzeko asmoa du. Irakasle bakoitzaren lana haren taldeko ezaugarrietara moldatzea izango da.

5. Proiektuaren antolamendua erabaki:

- 5.1. Nortzuek erabiliko dute? Ikastalde batek? Ziklo oso bat?.
- 5.2. Zenbat saio beharko diren kalkulatu. Ahal den heinean, ordu eta erdiko edo bi orduko saioak erabiltzea gomendatzen dugu. Emango diogun sakontasunaren eta proiektua garatzeko inplikaturako ikasgaien arabera, saio kopurua desberdina izan daiteke.
- 5.3. Zein momentu eta lekuan?
- 5.4. Erreserbatu beharko den esparruren bat beharko da? Garraiorik beharko da?...
- 5.5. Zer esango diegu familiei? Zein momentuan? Haien partaidetza dugu?
- 5.6. Baimen bereziren bat beharko da? (zuzendaritzarena, familia eskolatik kanpo joateko...).

5.2. BURUTZE.

Ikasleak etapa honetan, irakasleak lagundua, lana planifikatzen, antolatzen, burutzen eta ikasiari buruz hausnartzen du. Taldea motibatuzeko akzioak egiten ditu, ikertzerako doazen aspektuak identifikatzen ditu, ikerketako jarduerak garatzeko proposamenak egiten ditu, konklusioak atera eta zerbitzu solidario posible bat planteatzen du errealitate ikertua hobetzeko.

Zenbait ekintza:

1. Proiektuaren aurkezpena.

Helburuak:

- Ikasleak motibatu.
- Ekonomi krisialdia eta bere ondorioei buruzko ezagutza partekatu.
- Informazioa analizatu eta laburbildu.

Ekintzen sekuentzia:

- a. "El bocadillo mágico" (ogitarteko magikoa) edota "Experimento Comparte" bideoak ikusi. [5. Eranskina](#).

Talde handian elkarrizketa bat hasi bideoan ikusiari buruz eta, ekonomi krisialdiari buruz. Elkarrizketa hau bideratzeko zenbait galdera izan ahal dira: Zer pentsatzen duzu bideoan planteatzen denaz? Zure ustez zerk





sortzen du egoera hau ? Zer dakigu ekonomi krisialdiaz? Zeintzuk dira ondorioak ? Zer pasatzen da familia batean guztiak langabezia daudenean? Nola lortzen dute haren beharrak betetzea ? Badago laguntza motaren bat familia hauentzat ? Ezagutzen dituzu jardun diren pertsonak edo erakundeak hauei laguntzeko?...

Arbelean edo pantaila digitalean ezagutzen dituzten aspektuak jasoko ditugu, edo akordiorik ez badago, edo planteatzen direnak baina ez dakite ondo zertan dira, edo gehiago jakitea atsegin izango liekeenak ... eta gaiaren bat ikertzea proposatzen diegu. Jasotako ideiak dira ikasleen aurretiko ezagutzaren isla. Ondoren, hasiera batean ezagutzen zutena eta ikasitakoa konparatuko dituzte.

b. Ikastaldea launaka banatuko dugu (bi bikote).

Binaka irakur ditzaten pobrezia-erlazionatutako albisteak proposatuko diegu. Laukote bana bi albiste emango dizkiegu. **6. Eranskina.** (Interesgarria litzateke albisteren bat, bederen, pobretzeari erreferentzia egin diezaion, edo hilabetearen bukaeran iristeko zailtasunei, edo oinarriko premiak betetzeko, edo alferrik botatzen diren elikagaiei...) Irakurtzeko denbora eman eta gero, idei nagusiak identifikatzeko eskatuko diegu. Lauren artean komentatuko dituzte. Talde bakoitzak sailkatuko ditu idei hauek eta, bozeramaile bat aukeratuko dute denen aurrean azaltzeko.

c. Azalpena denon aurrean.

Bozeramaileek haien ekarpenak azalduko dituzte eta guztiek komentatu ahal izango dituzte. Behin behineko konklusioak txosten batean jasoko ditugu.

2. Lanaren gidoia eta antolamendua egin.

Helburuak:

- Ideia desberdinak elkartzea eta laneko eskema bat eratzea.
- Taldeetan antolatzea eta lanak eta funtzioak banatzea.
- Lan saioen kopurua finkatzea talde bakoitzak haren antolamendua ezar dezan.

Jardueren sekuentzia:

a. Talde handian, aurreko saioan atera ziren ideiak hartuko ditugu berriro. Erlazionatzen joango gara interes guneak lortu arte.

7. Eranskinean orientabide gisan, zenbait interes guneak eskaintzen ditugu. Behin betikoak ikastaldeen sortuko dira.

b. Lau ikasletako talde bakoitzari (bi bikote) interes guneren bat esleituko diogu. Interes guneak taldeak baino gutxiago baldin badira errepikatu ahal izango lituzkete.





c. Lan taldeen eraketa. Orientabidetzat zera proposatzen dugu:

- I. Zereginak banatu: Bozeramaileek (hauek, taldeen iritsiak ekarriko dituzte guztien aurrean), Idazkaria (emaitzak jaso eta lana kontrolatu egingo du garaiz bukatzeko, eta taldekideren bat falta bada, taldea berrantolatuko du), Moderadorea (taldeko eztabaidak zuzendu eta ahots-tonua kontrolatuko ditu lan giroa mantentzeko) eta Materialeko arduraduna (erabiliko den materiala eta ekoiztuko dena kontrolatzen du).
 - II. Funtzionamenduaren arauak taldean ezarri. [8. Eranskin](#)ean agertzen direnak proposatuko dizkiegu eztabaida eta onar ditzaten. Haien arau propioak egiteko aukera eman ahal diegu ere.
 - III. Materialen bilketa. Lana egin ahal izateko, zer dugu ikastetxean, ikastetxeko eta herriko liburutegian edo etxean?.

3. Bizkaiko Elikagaien Bankua bisitatu.

Helburuak:

- Irabazi gogorik gabeko erakunde batek nola funtzionatzen duen ezagutu.
- Boluntarioen lana estimatu eta honen garrantzia ezagutu.
- Ikerketa osatzera lagun dezan informazioa bildu.

Jardueren sekuentzia:

a. Bisitaren prestakuntza.

kasgelan, Elikagaien Bankaren aurkezpen bideoa ikusi.

[9. Eranskina](#)

Ikusiari buruz eztabaidatu eta galderak prestatu, Bankura joan ordurako. Talde bakoitzean bi galdeketa idazten dituzte, bata bulegoetakoentzat eta bestea biltegikoentzat. Taldeko bi kidek egingo dute elkarrizketa eta beste batzuk bi grabatuko dute. [10. Eranskin](#)ean dituzu galdeketetako ereduak.

b. Bisitaren egitea.

Idatziz eskatu baimena zentroko zuzendaritzari bisita egiteko.

Bizkaiko Elikagaien Bankua Basaurin bisitatu. Helbidea eta kontaktuak [4. Eranskin](#)ean agertzen dira. Bisitaren helburua, instalazioak eta pertsonalaren antolamendua ezagutzea da, baita elkarrizketak egin eta grabatu eta ahal den beste informazioa eta materialak jaso arduradunen eskutik.





4. Gaiari buruzko informazioa bilatu eta txosten bat egin.

Helburuak:

- Informazioa aurkitzeko, irakurtzeko eta ulertzeko gai izatea.
- Nabarmena selekzionatzea eta laburbiltzea.
- Gidoiaren arabera informazioa antolatzea.
- Txosten bat egitea.
- Txostenerako formatu desberdinak ezagutzea eta aplikatzea.

Jardueren sekuentzia

a. Talde txikian informazioaren bilaketa hasi. Lan hau egiteko zenbait saio behar dira. Saioen kopurua lanaren luzeraren, baliabideen eta dugun denboraren arabera izango da. Irakasleak taldeko mailak kontsideratuko ditu. Honen arabera, lana egiteko hiru aukerataraino eskaini ahal du.

- Informazioa daukan testua eman ahal die.
- Web orriaren erreferentzia eman haiek bila dezaten.
- Askatasuna eman, ikasleak informazioa aurki dezan haren kontutik.

[11.Eranskinean](#) web orri batzuk eskaintzen dizuegu, gaiari buruzko informazioa bila dezaten.

b. Informazioa batu eta gidoiaren atalak osatu.

c. Txostena egin. Txostenak, aurkitutako informazioaren laburpen bat izango du, baita balorazioa eta hobetzeko proposamenak. Txostena aurkezteko, era askotara egin daiteke:

- Testua azalpen eta irudiekin (hala nola argazkiak, grafikoak...)
- Power Point
- Bideoaren bata editatua
- ...

5. Txostenaren aurkezpena

Helburuak:

- Antolamendurako bideak garatu aurkezpen bat egiteko taldez.
- Jendaurreko azalpenak emateko trebetasunak garatu.
- Lanabes digitalak erabili azalpena laguntzeko.
- Besteen lana baloratu ikusmira kritikoaz.

Jardueren sekuentzia:

a) Txostenaren aurkezpena taldean prestatu. Gidoiaren parteak taldekideen artean banatu. Norberak prestatuko du dagokion parte, buruz ikasten ere beharrezkoa bada. Aurkezpena ondo egin arte entseguak egin.

b) Txostenaren aurkezpena. Talde bakoitzak, haien gelako besteei egindakoa azalduko diete. Beste gelakoei, familiei, ez irakasleei, beste ikastetxekoei ere azal ziezaiekeen. Entzuleek baloratuko dute txostena. Aurkezpena amaituz gero, taldeko moderatzaileek iritzietako txanda bat irekiko du ondoko eskemari jarraituz:





- I. Egindako aurkezpena baloratu, ondo zein hobetzeko dena seinalatuz. Zer baloratu behar den jakiteko, gida bat eskaintzen dugu [12. Eranskinean](#).
- II. Azaldutakoari buruzko eztabaida.

c) Txostenak argitaratu ikastaldeko blogean edota ikastetxeko webgunean.



6. Sozialki solidarioa den zerbitzu bat egin.

Helburuak:

- Ikasitakoa aplikatu, inguruko beharrei aurre egiteko.
- Egoerak erraztu ekimen pertsonala garatzeko.
- Baloreak garatu, hala nola konpromisoa, elkartasuna, enpatia behartsuekiko.
- Behar handikoei laguntzen dieten erakundeei lagundu.

Jardueren sekuentzia:

- a. Elikagaiak biltzeko kanpaina bat antolatu.

Idatziz eskatu baimena, ikastetxeko Zuzendaritzari, kanpaina egiteko. Bizkaiko Elikagaien Bankuaren kolaborazioa eta aholkua. Taldean edo gelakideen artean, posiblea bada, Bankuaren lagun baten laguntzaz, eztabaidatu eta erabaki kanpaina nola antolatu, elikagaiak nola sailkatu, bilketako eta ematearen datak ... Zereginak banatuko ditugu umeen trebetasunak eta interesak kontuan hartuz:

- I. Power Point prestatu, kanpainaren helburuak, datuak (bilketako datak, lekuak, behar diren elikagaiak) azaltzeko eta partaidetza pizteko.
- II. Logotipo eta lelo bat prestatu. Kanpaina ezagutarazteko kartelak egin.

Kanpaina zabaldu euskarri digital eta analogikoaz: zentroko webaz, iragarki-taulaz, egunkariak edo eskola irratiaz, auzoaren beste toki batzuk erabiliz ...

- b. Kanpaina egin.

Gelako taldean elikagaien bilketarako ordu-tegiak ezarri, baita txandak eta arduradunak. Txanda bakoitzean lanak banatu: taldeko arduraduna, elikagaien poltsak jasoko dituen/dituztenak, kontabilitatearen arduraduna, sailkatuko dituztenak, kutxetan sartuko dituztenak, argazkiak eta bideoak egingo dituztenak... Ezarritako orduetan eta lekuetan elikagaiak jaso.





c. Kanpainaren memoria.

Talde txikietan txosten bat egin non azalduko dira egindako lanak, jasotako elikagaien datuak (motak, kantitateak, kopurua) dokumentu grafikoak eta kanpainaren balorazioa.

Gelakideen aurrean datuak azaldu elkarren artean, kanpainaren memoria egiteko.

Memoria hau formatu desberdinetan aurkeztu ahal izango da: testua, power point, bideoa, ikasgelako blogean edo ikastetxeko weban argitaratu,

d. Elikagaien Bankuari elikagaiak eman.

Elikagaien emate ekitaldia antolatzeko, idatziz eskatu baimena ikastetxeko zuzendaritzari.

Ekitaldia deituz, Elikagaien Bankuko arduradunak, zentroko zuzendaritza, irakasleak, ikasleak, familiak, udaleko ordezkaria gonbidatuz (asistentzia errazteko eskolaz kanpoko ordutegian deitu ahal da).

Ekitaldirako, hurrengo gidoiari jarraitu:

- I. Ikasleen talde batek kanpainaren memoria azalduko du
- II. Ikastetxeko zuzendaritzak baloratuko du kanpaina.
- III. Elikagaien Bankuko arduradunak hartuko du parte egindako lana eskertzeko.
- IV. Jasotako elikagaiak eman kontabilitateko orri baten bidez. Egindako txostenak eta memoria ere emango dira Elikagaien Bankuko weban ipini ahal izateko.

Ekitaldia ospakizun txiki batez itxi ahal da, egindako esfortzua goraiatuz, lagundu duten pertsona guztiak klasean antolatutako lunch batean parte hartuz (ikasleak, irakasleak eta familiak antolatuta).

Klaseko talde batek, aurrez ezarrita, testigantza grafikoak jasotzen ditu (fotoak eta bideoak) zentroko webean argitaratzeko.

7. Ebaluazioa eta proiektuaren amaiera.

Helburuak:

- Nor bere ikas prozesua aztertu.
- Arrakastetako zein zailtasunetako kontziente izan.
- Helmugaratzeko egindako esfortzua baloratu.
- Ondo egindako lanagatik plazer izatea.





Jardueren sekuentzia:

a. Ikasleak bere burua ebaluatu.

Beren ikaste prozesua baloratuko dute ikasleek. Horretarako, [13. Eranskinean](#) agertzen den galdetegiari erantzungo diete.

Talde txikian. Aipatutako galdetegia komunean jarri eta emaitzak jaso txantilo batean.

Talde handian. Komunen jarri taldeetan landutakoa. Emaitzak txantilo batean jasoko dira.

Jasotako ikaspenak, lehenengo saioan jasotakoekin konparatuko dituzte, hots hasieran zeuzkaten ideiak eta oraingokoak konparatuz.

b. Ikasleek, haien zerbitzu solidarioaren ondorioak ebaluatzen dituzte.

[14. Eranskineko](#) galdesortari erantzungo diete banaka.

Talde txikian. Aurreko galderei emandako erantzunak komunean jarri.

Talde handian. Taldeetan landutakoa komunean jarri.

5.3. PROIEKTUAREN EBALUAZIO OROKORRA

Proiektuaren prozesua amaituz gero, irakasleek ebaluatuko dute. Parte hartu duten irakasleen azken lan saioa izango da.

Helburuak:

- Ikasle bakoitzaren lana baloratu eta jasota utzi.
- Proiektuari buruzko hausnarketa egin: sendo dagoena finkatzeko eta ahula indartzeko edo hobetzeko.
- Erakunde desberdinekin izandako harremanak baloratu.
- Irakasleen jokaera proiektuan kritikoki baloratu.

Jardueren sekuentzia:

a. Ikasleak balioztatu.

Irakasleek ikasle bakoitza balioztatuko dute ikasgelan ikusitakoa eta ikaslearen buru ebaluazioa kontuan hartuz.

b. Erakundeekin egindako lana balioztatu.

Irakasleek balioztatuko dute erakundeekin izandako harremana.





c. Proiektuaren ebaluazioa. Baliozta daitezken zenbait alde:

- Proiektuaren interes globala (ikasle eta irakasleentzat).
- Ikasle-irakasleen parte-hartzea.
- Helburuen lorpen maila.
- Metodologiaren egokitasuna gaitasunak garatzeko.
- Aurkitutako oztopoak eta nola gainditu diren.
- Hobekuntza proposamenak
- ...

d. Irakasleen buru ebaluazioa. Balioztatu ahal diren zenbait puntu:

- Planifikazioa
- Inplikazioa proiektuan
- Koordinazio maila
- Irakasleek proiektuan egindako lanaren alde positiboak
- Zailtasun handienak
- Asetzearen maila

Amaitzeko, [15. Eranskinean](#), irakasleen kontsultarako zenbait materialak eskaintzen dizkizuegu.

BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA
2016ko ekaina

